Luis Almansa erantzuten dio nahiago duela inozoa izan demagogoa baino.

Luis Almansa replica al PP que prefiere pecar de ingenuo que de demagogo.

Joseba Arregui jaunak gogorarazten du gobernu-taldea mozioan abstenitu egingo dela eta talde popularrak erraztutako informazioa teknikariei helaraziko diela, datuak partzialak eta okerrak direla iruditzen baitzaio.

Joseba Arregui recuerda que el equipo de gobierno se va a abstener en la moción y que trasladará la información facilitada por el grupo popular a los técnicos porque cree que los datos son parciales y sesgados.

Jesus Toca jaunak gobernu-taldeak duen informazioa zaharkituta dagoela azpimarratzen du, egungo komunak txikiagoak eta merkeagoak baitira.

Jesus Toca insiste en que la información de que dispone el equipo de gobierno es anticuada ya que actualmente los urinarios son más reducidos y de menor coste.

Mozioa bozkatu egiten da eta honako emaitza hau lortzen da: PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto, Bilduren aurkako 4 boto eta EAJ-PNV taldearen 10 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, PSE-EE; 4 votos en contra Bildu y 10 abstenciones, PNV.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia, por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Getxo udalerri aparta da, pasealekuei eta aisia guneei dagokienez, eta getxotar familiek eta bisitatzen gaituztenek horiez gozatzeko aukera dute.

Getxo es un municipio privilegiado en cuanto a sus paseos y zonas de esparcimiento, que disfrutan tanto las familias getxotarras como aquellas otras que nos visitan.

Udaleko Talde Popularrean uste dugu gure parke, lorategi eta jolas-parke sare zabalak hutsune larria daukala, komun publikoena, hain zuzen ere.

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos que nuestra extensa red de parques, jardines y juegos infantiles tienen una grave carencia, la de unos aseos y urinarios públicos.

Gaur egun, Areetako Moilako pasealekuaren amaieran bakarrik dauzkagu, Aixerrotaren ondoan, eta Ereagako hondartzan eta Bizkaia

Actualmente sólo contamos con este servicio en el final del paseo del Muelle de Las Arenas, junto al molino de Aixerrota y los que quedan fijos como

Zubiaren ondoan finko daudenak eta Areeta eta Arrigunagako hondartzetan, denboraldian jartzen direnak.

Horiek ematen dute zerbitzu bat, baina, gure ustez, ez dira nahikoa gure herrian dauzkagun pasealeku eta aisia gune guztiak kontuan hartuta.

Herritarrei egindako inkesta guztietan aldarrikatzen da plaza, parke eta lorategietan komun publikoak jartzea. Gaur egun, eskaera horiek guztiak ezerezean geratu dira.

Udaleko Talde Popularrekook uste dugu ezinbestekoa dela, atzerapenik gabe, komun publikoen sare bat jartzea udalerriko eremu anitzetan, hori egiteko modu ezberdinak daudelarik.

Beste udalerri batzuek eman diote irtenbidea arazo honi, zerbitzu hori jarrita; hala nola, Bilbok, Santanderrek, Gijonek, Irunek…

Beharrezkotzat jotzen dugu, hasiera batean, udalerriko HAMAR parke eta lorategitan jartzea komunak, honako hauetan, hain zuzen ere: Zugazarte pasealekuan, Areetako eta Algortako Geltoki Plazan, Chabarri Zuazo, Usategi, Aldapa, La Borobia eta Maidagango parkeetan, Santa Ana plazan eta Galeako aparkalekuan.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udal Talde Popularrak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

LEHENENGOA.- Lehenbailehen komun publikoen sare bat jartzea gure parke eta lorategietan, aurrez aipatutako kokalekuak erreferentziatzat

los de la Playa de Ereaga y del Puente Colgante, así como los de temporada en las playas de Las Arenas y Arrigunaga.

Todos ellos dan un servicio, pero un servicio que consideramos insuficientes para los paseos y zonas de esparcimiento de nuestro pueblo.

Todas las encuestas realizadas a los vecinos, reivindican la instalación de aseos públicos en plazas, parques y jardines. A día de hoy todas estas solicitudes han caído en saco roto.

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos imprescindible acometer, sin retrasos, la instalación de una red de aseos públicos en diferentes áreas del municipio ya que existen diferentes formas de acometerlo.

Otros municipios ya han dado solución a este problema con la instalación de este servicio como son Bilbao, Santander, Gijón, Irún, etc.

Nosotros consideramos necesario el establecimiento de estos aseos de forma inicial en DIEZ parques y jardines del municipio, en concreto, se plantea ubicar los aseos en el paseo de Zugazarte, la Plaza de la Estación de las Arenas y de Algorta, en los parques de Chabarri Zuazo, Usategui, Aldapa, La Borobia y Maidagan así como en la plaza de Santa Ana y en el aparcamiento de La Galea.

Por todo ello el Grupo Municipal de Partido Popular presenta en el pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- Que a la mayor brevedad, se proceda a la instalación de una red de aseos públicos en nuestros parques y jardines, sirviendo de referencia las

hartuta.

BIGARRENA. Udaleko komunikabideetan honako mozioaren berri ematea.

**107.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUROKOPA 2020RAKO SAN MAMES JOKO-ZELAIA PROPOSATZEA.**

Javier Ruiz jaunak mozioa irakurtzen du. Eurokoparen garrantzia eta futbolerako dagoen zaletasun handia azpimarratzen ditu eta, baita, San Mameseko futbol-zelai berria hor dagoela ere. Espainiako gobernuak San Mames egoitzatzat proposatu zuela gogorarazten du. Horrek agerian uzten du duen garrantzia, nahiz eta nazionalistek kontu horietan ahalegin handirik egin ez. Gertaera hori Bilborentzako, Getxorentzako eta, oro har, Bizkaia osoarentzako ona litzatekeela uste du.

Luis Almansa jaunak adierazten du harrigarria egiten zaiola Espainiako gobernuko alderdiak Getxoko Udaleko Osoko Bilkura erabiltzea Espainiako gobernuari zuzentzeko. Talde sozialistak proposamen hori Bilboko Udalean eta Batzar Nagusietan onartu duela gogorarazten du eta, beraz, aldeko botoa emango dute.

Maitane Nerekan andreak adierazten du Bildu taldeak aurkako botoa emango duela, nekaturik baitaude gizarte hau ordezkatzen ez duen selekzio bat sustatzeko talderen batek duen identitate-obsesio horrekin. Bere ustez, San Mames hura eraikitzerakoan eman den langileen esplotazioan eta diru publikoa erakunde pribatuetan

ubicaciones antes referenciadas.

SEGUNDO. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**107.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CANDIDATURA SAN MAMÉS COMO SEDE EUROCOPA 2020.**

Javier Ruiz da lectura a la moción. Incide en la importancia de la Eurocopa y en la gran afición al fútbol que existe así como en la existencia del nuevo campo de San Mamés. Recueda que el gobierno de España planteó a San Mamés como sede, lo que demuestra el interés que tiene pese al poco empeño de los nacionalistas en estas cuestiones. Cree que el evento será bueno para Bilbao, para Getxo y para toda Bizkaia.

Luis Almansa manifiesta que le resulta chocante que el partido del gobierno de España utilice el Pleno del Ayuntamiento de Getxo para dirigirse al gobierno de España. Recuerda que esta propuesta ha sido aprobada por el grupo socialista en el Ayuntamiento de Bilbao y en Juntas Generales, por lo que votarán a favor.

Maitane Nerekan indica que Bildu votará en contra porque están cansados de la obsesión identitaria de algún grupo para potenciar a una selección que no representa a esta sociedad. Cree que San Mamés ha sido únicamente referente en la explotación de trabajadores en su contrucción y en la inversión de dinero público en

inbertitzearen erreferente soilik izan da. Hortik eratorriko liratekeen gizarte-onurei dagokienez, Brasilen ospatzen ari den mundialetik herritarrentzako zer-nolako gizarte-onurak lortzen diren galdetzen du. PP taldeak mozio honekin lortu nahi duen bakarra Euskalerriaren independentzia defendatzen duten herritarrak probokatzea dela deritzo.

entidades privadas. Respecto a los beneficios sociales que derivarían, se pregunta qué beneficios sociales para la ciudadanía se obtienen del mundial que se está celebrando en Brasil. Opina que lo único que pretende el PP con esta moción es provocar a los ciudadanos que defienden la independiencia de Euskalherria.

Javier Ruiz jaunak erantzuten dio proposamena zenbat eta erakunde gehiagok babestu, Espainiako gobernuaren inplikazioa orduan eta handiagoa izango dela. Bilboko Udalean eta Batzar Nagusietan erakunde horiek gertaera horren aldeko jarrera izan zezatela planteatzen zen eta mozio honetan planteatzen dena Espainiako gobernua presatzea da. Bildu taldeari esaten dio PP taldeari Eurokopa etortzea interesatzen zaiola, Espainiak jokatu nahiz jokatu ez; izan ere, edozein kasutan ere, gai hori ez dago ziurtatuta, sailkapen-fasearen arabera egongo baita. Bildu taldeari bere identitate-obsesioa kritikatzen dio, izan ere, mozioa ez onartzearen arrazoia Espainiak joka dezakeela da. Langileen esplotazioari dagokionez, esplotazio hori egon dela jakin baldin badaki auzitegien aurrean salatzeko esaten dio. Gertaera horren onurei dagokienez, berriz, galde diezaiola Bilboko eta inguruetako dendei eta ostalariei.

Javier Ruiz replica que cuantas más instituciones apoyen la propuesta será más posible una mayor implicación del Gobierno de España. Precisa que en el Ayuntamiento de Bilbao y en Juntas Generales planteaban que esas instituciones se posicionaran a favor del evento y en esta moción lo que se plantea es instar al gobierno de España. A Bildu le indica que el PP quiere que venga la Eurocopa, juegue España o no, ya que en todo caso es una cuestión que no está garantizada porque depende de la fase clasificatoria. Critica a Bildu su obsesión identitaria y que no acepta la moción por si pudiera jugar España. Respecto a la explotación de los trabajadores indica que si le consta su existencia lo denuncie ante los tribunales. Sobre los beneficios del evento que pregunte a los comercios y hosteleros de Bilbao y el entorno.

Maitane Nerekan andreak talde popularrari erantzuten dio nork joka dezakeen erabakigarria ez bada, hurrengo Osoko Bilkuran Euskalherriko edo Kataluniako selekzioek jokatzea planteatzen duen mozioa babestea itxaro dutela. Bere ustez, Bilbori, urtero, Aste Nagusi parte-hartzaile batek askoz ere ekarpen handiagoa egiten dio 20 urtetik behi

Maitane Nerekan replica al grupo popular que si no es determinante quién pueda jugar, espera que en un próximo Pleno apoye una moción en la que se plantee que pueda jugar la selección de Euskalherria o Cataluña. Cree que aporta más a Bilbao una Aste Nagusia participativa cada año que no la Eurocopa cada 20 años y que este evento no trae ningún beneficio para el

Eurokopa egiteak baino. Gainera, gertaera horrek ez dio inolako onurarik ekartzen emakumeen kirolari ez kirol paraolinpikoari.

deporte femenino ni paraolímpico.

Javier Ruiz jaunak erantzuten dio Eurokopan zein selekziok joka dezaketen erabakia Fifa-ri dagokiola. Emakumeen kirolari eta paraolinpikoari dagokionez, bakoitzak bere espazioa duela dio eta Bilduri aurkakotasuna horrenbeste gustatzea kritikatzen dio, Espainia Euskadiren aurka, euskara gaztelaniaren aurka Aste Nagusia Eurokoparen aurka, eta hori ez zaio arrazoizkoa iruditzen.

Javier Ruiz le replica que la determinación de las selecciones que puedan participar en la Eurorope depende de la Fifa. En relación al deporte femenino y paraolímpico indica que cada uno tiene sus especios y critica a Bildu que le guste tanto el antagonismo, España frente a Euskadi, euskera frente a castellano, Aste Nagusia frente a Eurocopa, lo cual no le parece razonable.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto, Bilduren aurkako 4 boto eta EAJ-PNV taldearen 10 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, PSE-EE, 4 votos en contra, Bildu y 10 abstenciones PNV.

Koldo Iturbe jaunak esku hartzen du bere abstentzio-botoa justifikatzeko; izan ere, batetik, ez du inolako zalantzarik Eurokopa Bilbon egitea Bilborentzako eta Bizkaia osoarentzako onuragarria denari dagokionez eta, bestetik, Osoko Bilkura honetan behin eta berriz adierazi duten legez, Euskal Selekzioak Eurokopan parte hartzearen alde daude, beraz, abstenitu egingo dira.

Interviene Koldo Iturbe para justificar su voto de abstención ya que por un lado no tiene ninguna duda que la celebración de la Eurocopa en Bilbao trae beneficios a Bilbao y a toda Bizkaia pero, por otro lado, como en repetidas ocasiones han manifestado en este Pleno defienden la participación de la Euskal Selekzioa en la Eurocopa, por lo que se abstienen.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

2020ko Eurokopa nazioarteko maila goreneko kirol-gertaera da. Txapelketaren 60. urteurrena ospatuko da 2020. urtean eta UEFAk, lehen aldiz, Europako hiri anitzetan ospatzea nahi izan du. 19 hautagaitza aukeratu dituzte eta, horietatik, irail erdialdean, txapelketaren egoitza ofizialak izango diren 13 hiri aukeratu beharko ditu UEFAren Exekuzio Batzordeak.

La Eurocopa 2020 supone un acontecimiento deportivo internacional de primer nivel. En el año 2020 se celebrará el 60 aniversario del torneo y la UEFA ha querido que por primera vez, se celebre en diferentes ciudades europeas. 19 candidaturas han sido seleccionadas, de las cuales, a mediados de septiembre el Comité Ejecutivo de la UEFA deberá elegir las 13 ciudades que

serán sedes oficiales del torneo.

Aurtengo apirilean, Espainiako Futbol Federazioak, Bilbo eta San Mames aukeratu zituen 2020ko Eurokoparen egoitza izateko hautagai espainiar gisa. Nazioarte mailan entzute handia duten London, Erroma edo Munich bezalako hiriekin lehiatu beharko da Bilbo kirol-gertaera hori hartzeko.

El pasado mes de abril la Real Federación Española de Fútbol, eligió Bilbao y a San Mamés como candidata española para ser sede de la Eurocopa 2020. Bilbao competirá para albergar este evento deportivo con ciudades de tanta notoriedad internacional, como Londres, Roma o Munich.

Agerikoa da lehia handia dagoela eta, beraz, ez dela batere erraza izango 2020ko Eurokopako egoitza izateko aukeratua izatea. Horregatik, uste dugu Espainiako Gobernua eta aktiboan inplikatu behar dela eta ahalegin guztiak egin behar dituela San Mames eta Bilbo, hautagaiak izatetik, 2020ko Eurokoparen egoitza ofizial izatera pasa daitezen.

Es evidente que existe mucha competencia y que por tanto, no resultará tarea fácil ser finalmente elegida como sede para la Eurocopa 2020. Por ello, entendemos que el Gobierno de España debe implicarse activamente y redoblar sus esfuerzos, para que San Mamés y Bilbao pasen de ser candidatas a convertirse en sedes oficiales de la Eurocopa 2020.

Erakundeek sinergiak batu eta elkarrekin lan egin behar dute, Bilbo nazioarteko oihartzuna eta garrantzia duen kirol-gertaera horretan era aktiboan parte hartu eta egoitza izan dadin, zalantzarik gabe, hiriaren eta gure Lurralde Historiko osoaren onurarako izango baita.

Las instituciones deben aunar sinergias y trabajar conjuntamente para que Bilbao albergue y participe activamente en un evento deportivo de tanta repercusión y envergadura internacional, que sin duda redundará en beneficio de la ciudad y del conjunto de nuestro Territorio Histórico.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udal Talde Popularrak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du, eztabaidatu eta onartu dadin.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta para su debate y aprobación la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO.

LEHENENGOA. Espainiako Gobernuari eta Kirol-batzorde Nazionalari, 2020ko Eurokoparen egoitza gisa Bilboren hautagaitzaren defentsan era aktiboan inplikatu eta defentsa horren lidergoa hartu dezatela eskatzea.

PRIMERO. Instar al Gobierno de España y al Consejo Superior de Deportes, a que se impliquen activamente y lideren la defensa de la candidatura de Bilbao como sede para la Eurocopa 2020.

BIGARRENA. Udaleko komunikabideetan honako mozioaren berri ematea.

SEGUNDO. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**108.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KONTRATAZIO ARLOAREN GAITZESPENA.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du:

Joan den urtetik EH Bildukook salatzen gabiltza Gobernu Taldeak udal kontratazio arloaz egiten duen gestio kaxkarra. Asko izan dira legegintzaldi honetan gestio txar horren adibideak, tartean, Kontuen Euskal Epaitegiak kaleratutako txostenean egindako kritikak ere izan dira.

Baina, 2013ko irailetik Osoko Bilkuratik pasa behar izan diren kontraturik gabeko zerbitzuen fakturak dira horren adibide gorena. Orain arte lau izan dira kontratu berriaren esleipena berandu kudeatzeagatik, fakturen bitartez ordaindu behar izan diren zerbitzuak: lorezaintza, udal eraikinen barruko garbiketa, zaborrak eta etxez-etxeko laguntza zerbitzua. Laurak herritarrentzat oso garrantzitsuak diren zerbitzuak dira, batez ere zaborren bilketa eta etxez- etxeko laguntza zerbitzua. Lau zerbitzu hauen esleipena berandu egiteagatik, 21 faktura bidali behar izan dira Osoko Bilkurara 2013ko irailetik 2014ko maiatzera arte; horrek guztira 12.000.000 euro baino gehiago kontratutik kanpo ordaintzera behartu du Udala. Gainera, bi kasutan, enpresek jarritako errekurtsoei erantzunez, udalak diru publikoaz ordaindu beharko ditu zerbitzuak berandu ordaintzeagatiko interesak.

**108.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ REPROBACIÓN AL AREA DE CONTRATACIÓN.**

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

Ya desde el año pasado, EH Bildu viene denunciando la mediocre gestión que realiza el Equipo de Gobierno en el Área de Contratación. Durante esta legislatura ha habido muchos ejemplos de esa mala gestión, incluidas las críticas que ha publicado en su informe el Tribunal Vasco de Cuentas.

De todas maneras, el mejor ejemplo han sido las facturas correspondientes a servicios sin contrato que han tenido que pasar por el Pleno desde septiembre de 2013. Hasta el momento han sido cuatro los servicios que, debido al retraso en la adjudicación del nuevo contrato, han debido abonarse mediante facturas: jardinería, limpieza interior de edificios municipales, basuras y servicio de asistencia a domicilio. Esos cuatro servicios son muy importantes para la ciudadanía, sobre todo la recogida de basuras y el servicio de asistencia a domicilio. Debido al retraso en la adjudicación de estos cuatro servicios, han tenido que enviarse, desde septiembre de 2013 a mayo de 2014, al Pleno 21 facturas. Por consiguiente, el Ayuntamiento ha tenido que abonar más de 12.000.000 euros fuera de contrato. Además, en dos de esos casos, respondiendo a los recursos interpuestos por las empresas, el Ayuntamiento deberá pagar con dinero público los intereses por la demora en el pago de los servicios realizados.

Aipatu beharrekoa da ere, horren aurretik, TAO kudeatzeko zerbitzuaren luzapena berandu kudeatzeagatik, Alkateak dekretu bidez (Plenoaren eskumena den a lapurtuz) onartu behar izan zuela.

Cabe mencionar también que, anteriormente, el Alcalde se vio forzado admitir por decreto (haciendo suyas facultades que corresponden al Pleno) el retraso en la tramitación de la prórroga del servicio de gestión de la OTA.

Zaborren bilketaren kontratuaren esleipenaren kasuan izan ezik (honetan udalean ordezkaritza dugun talde politiko guztiok parte hartu dugu kontratazio mahaian), gainontzeko kasuetan, talde politikoak fakturak Plenoan onartu behar izatearen konpromisoarekin aurkitu gara, aurretik atzerapenen eta prozesuen inguruan inolako informaziorik eman ez bazaigu ere.

Salvo en el caso de la adjudicación del contrato de recogida de basuras (ya que en la Mesa de Contratación hemos participado todos los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento), en el resto de los casos los partidos políticos nos hemos visto en el compromiso de tener que dar el visto bueno a las facturas en el Pleno, a pesar de que no se nos ha dado ninguna información sobre los retrasos y los procesos.

Honez gain, Getxo Antzokia, Romo Kultur Etxea edo udal eraikinen garbiketa kontratuetan, beste askoren artean, ikusi behar izan dugu kontratuak zelan zatitu diren, Osoko Bilkurako kontratazio mahaitik pasa behar ez izateko.

Además de eso, hemos tenido que ver cómo se han fraccionado los contratos de Getxo Antzokia, el Aula de Cultura de Romo y los contratos de limpieza de los edificios municipales, entre otros, para no tener que pasar por la Mesa de Contratación del Pleno.

Honek eta kontratazio arloaren iluntasun eta gestio txarragatik seguru asko ezagutuko ez ditugun beste adibideek, argi erakusten dute Gobernu Taldeak ez duela kontratazio arloa gardentasunez eta modu zuzenean kudeatzeko asmorik. EH Bildutik gogor salatzen dugu hori, batez ere, Getxoko udalean, non udal zerbitzu gehienak (zaborrak, lorezaintza, TAO ... ) zein proiektu garrantzitsuenak enpresa pribatuen bitartez eramaten diren aurrera. Diru publikoa gardentasunez kudeatu behar da, are gehiago bizi dugun krisi garai honetan, eta Getxon egiten ari den kontratazio arloaren kudeaketak oso bestelako bidea

Todo eso, y el resto de casos que seguramente no conoceremos debido a la opacidad y la mala gestión del Área de Contratación, demuestra claramente que el Equipo de Gobierno no tiene ninguna intención de gestionar el Área de Contratación con transparencia y rigor. EH Bildu denuncia todos estos hechos, sobre todo en el Ayuntamiento de Getxo, donde la mayoría de los servicios municipales (basuras, jardinería, OTA...) y los proyectos más importantes son llevados a cabo por empresas privadas. El dinero público debe gestionarse de manera transparente, más en estos tiempos de crisis, pero la gestión de la contratación

eramaten du.

del Ayuntamiento de Getxo lleva otro derrotero muy diferente.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Bildu Udal Taldeak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo eso, el grupo municipal de Bildu del Ayuntamiento de Getxo presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:

LEHENENGOA: Getxoko Udalbatzarrak kontratazio arloaren arduraduna den Alvaro Gonzalez Perez jaunaren gaitzespena erabaki du, legegintzaldi honetan kontratazio arloan eman den gestio txarrak udal honi eta beraz, getxoztarrei, ekartzen dien kalteen erantzule bezala.

PRIMERA: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo ha decidido reprobar como responsable del Área de Contratación al señor Álvaro González Pérez, por considerarlo responsable de los daños que la mala gestión de la contratación ha provocado al Ayuntamiento y, por tanto, a la ciudadanía de Getxo.

BIGARRENA: Getxoko Udalbatzarrak Alkateari, udalaren arduradun gorena denez gero, eskatzen dio, udal kontratazio arloaren inguruko hausnarketa integrala egin dezala, aurretik aipatutako arazoei zein antzekoei erantzuna emateko neurriak hartzeko.

SEGUNDO: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Alcalde, como sumo responsable de la institución, que realice una reflexión integral sobre el Área de Contratación, para después tomar la medidas que solucionen los problemas mencionados anteriormente y otros semejantes.

Maitane Nerekan andreak adierazten du jakin badakitela udalbatzar-kide baten aurkako gaitzespena aurkeztea gogorra dela eta alkatea gaitzestea planteatu zuten, baina horrek zentsura-mozioa adieraziko luke eta ez dute babesik eta, ondorioz, une honetan ezin dute aurkeztu. Jakin badakite ere, gaiak Osoko Bilkuran aurkezten ez badituzte ez dutela eragin mediatikorik edukiko; hain zuzen, horregatik aurkeztu dute mozioa. Gaiari dagokionez hainbat mozio eta proposamen aurkeztu dutela gogorarazten du udal-taldeek kontratazio-mahaietan partaidetza handiagoa izan dezatela eskatuz, alabaina, gobernu-taldeak zentzu horretan ez du inolako urratsik eman. Gai honi dagokionez, parte-hartzea gehitzea ekarriko duen presio popularra eragitea garrantzitsua dela

Maitane Nerekan manifiesta que son conscientes que una reprobación a un corporativo es duro y que se plantearon la reprobación del Alcalde, pero ello supondría una moción de censura que no tiene apoyo, y que en este momento no pueden presentar. Son conscientes de que si no presentan los temas en el Pleno no tiene ninguna repercusión mediática y es por lo que han presentado la moción. Recuerda que han planteado diversas mociones y propuestas al respecto pidiendo mayor participación de los grupos municipales en las mesas de contratación sin que el equipo de gobierno haya dado pasos en este sentido. Cree que en cuestión es importante que se genere una presión popular que aumente la participación y la moción busca hacer pública la mala gestión de la contratación y que se

uste du eta, mozio honen bitartez, kontratazioaren kudeaketa txarra jarri nahi da agerian eta kontratazio publikoaren gardentasunean aurrera egin nahi da.

avance en la transparencia de la contratación pública.

Eduardo Andrade jaunak erantzuten dio mozioak agerian uzten duela Bildu taldeak ez duela lotsarik, izan ere, duela ordubete mozioan salatzen diren eta bere gaitzespen-jarrera justifikatzen duten kontratuen fakturak onartzea ahalbidetu du. Talde popularra praktikora doa eta, horregatik, gai honi dagokionez, bide judiziala planteatzen dute gaia argitzeko eta egon daitezkeen erantzukizunak eskatzeko. Bilduri gobernu-taldearen inozo baliagarriak direla esaten dio eta beharrezkoa denean azpikontratazioa babesten dutela, Cespa eta Lagunduz kasuetan esaterako. Bilduri gogorarazten dio gobernu-taldearekin hainbat ekitalditan zergen igoerak itundu dituztela eta hainbat obra ahalbidetu dituztela, Romoko Kultur Etxea kasu. Udaletik kanpo zeudenean, pankarta bidez, kudeatzeko moduak eta orain aurrekontu-akordio bidez ahalbidetzen dituzten gaiak salatzen zituztela kritikatzen dio. Kudeaketa alkatearen erantzukizuna dela eta Kontratazio-Arloak Udalburutzatik markatutako irizpide politikoei erantzuten diela eta oposiziotik jarrera gogorra ez dagoen bitartean ez dela ezer lortuko gogorarazten dio.

Eduardo Andrade replica indicando que la moción evidencia que Bildu no tiene vergüenza ya que hace una hora ha posibilitado aprobar facturas de contratos que son objeto de denuncia en la moción y que justifican su postura de reprobación. El grupo popular va a lo práctico y por ello en este tema plantean la vía judicial para clarificar el tema y exigir las responsabilidades que existieran. Manifiesta a Bildu que son los tontos útiles del equipo de gobierno y que cuando es necesario apoyan la subcontratación como en el caso de Cespa y de Lagunduz. Recuerda a Bildu que han pactado en diversos ejercicios con el equipo de gobierno subidas de impuestos y posibilitado obras como la Kultur Etxea de Romo. Critica que cuando estaban fuera del ayuntamiento, en la pancarta, denunciaban formas de gestionar y cuestiones que ahora posibilitan a través de acuerdos prepuestarios. Recuerda que la gestión es responsabilidad del Alcalde y el Área de Contratación responde a los criterios políticos que se marcan desde la Alcadía y que en tanto no haya una postura férrea desde la oposición no se va a conseguir nada.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du talde sozialistak ez diola oposizioari oposiziorik egingo. Mozioak Kontratazio Arloko zinegotziari gaitzespena egitea proposatzen du, izan ere, Bilduren arabera alkatea ezin da gaitzetsi zentsura-mozio baten bitartez ez bada. Jarrera horretarako ez du arrazoirik ikusten, baina ausardia falta

Agustín Ruiz manifiesta que el grupo socialista no va a hacer oposición a la oposición. La moción plantea reprobar al concejal de Contratación porque Bildu indica que no se puede reprobar al Alcalde sino a traves de una moción de censura, cuestión que no ve razón para esta posición pero lo que sí reconoce es que falta valentía. Respecto

bai aitortzen duela. Udal-kontratazioaren kudeaketari dagokionez, okerrago ezin daitekeela egin uste du. Seguruenik, EAJ-PNV taldeak bere kontratazio-irizpideei buruzko justifikazio-multzo bat aurkeztuko du, gobernuan edo oposizioan dagoenaren arabera aldatzen direnak.

Alvaro Gonzalez jaunak, gobernu-taldearen izenean mozioak gezurrak jasotzen dituela adierazten du, horien artean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari egozten zaizkion baieztapenak, izan ere, dauden bakarrak irizpide juridikoetan desadostasunak dira eta inolaz ere ez kontratazioko oinarrizko printzipioen ez betetzeak. Atzerapenari dagokionez, aurreikusi ezin daitezkeen arrazoiek eragiten dituztela adierazten du, eta interesen ordainketa Osoko Bilkurak, hasiera batean, fakturak ordaintzeari uko egin ziolako gertatu dela. Kontratazio Arloak taldeei edozein motako espedienteetara sarbidea behar izan dutenean horretarako aukera eman diela gogorarazten du eta Udaleko teknikariak guztiz bikainak direla legezkotasuna betetzen eta kontratazioen formulazioan eta egikaritzan. Halaber, Kontratuen banaketa arrazoi teknikoetan oinarritzen da. Eraikinen barnealdea garbitzeko kontratuari dagokionez, Tokiko Erakunde Autonomoak atxiki edo atxiki ez erabakitzeko askeak dira eta, dagokigun kasuan, horietako bi ez dira atxiki, aurreko kontratuarekin izandako esperientzia dela eta. Opakotasuna dela eta oposizioak egindako salaketei dagokienez, opakutasunik ez dagoela adierazten du eta, jarraian, kontratatzailearen profiletik dokumentaziora eta

a la gestión de la contratación municipal estima que no se puede hacer peor. Indica que seguramente el PNV presentará una batería de justificaciones que varían si esta en el gobierno o en la oposición respecto a sus criteros de contratación. La fórmula de la búsqueda de un cabeza de turco no es lo adecuado en estas cuestiones, por lo que se abstendrán.

Alvaro González en nombre del equipo de gobierno indica que la moción contiene falsedades como las afirmaciones que se asigan al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, ya que lo único que existen son divergencias de criterios jurídicos y en ningún momento incumplimientos de principios básicos de la contratación. Respecto al retraso manifiesta que se producen por causas imprevisibles y que el pago de intereses se debe a que el Pleno, en primera instancia, rechazó el abono de las facturas. Recuerda que el Área de Contratación ha posibilitado a los grupos cuando lo han pedido el acceso a cualquier tipo de expediente y que los técnicos y técnicas del ayuntamiento son absolutamnte exquisitos en el cumplimiento de la legalidad, en la formulación y ejecución de los contratos. Asimismo, la división de los contratos se basa en razones técnicas. Respecto al contrato de limpieza de interiores recuerda que los Organismo Autónomos Locales son libres de adherirse o no y que en esta ocasión dos de ellos no se han adherido en base a la experiencia que habían tenido del contrato anterior. Respecto a las denuncias de la oposición de la opacidad, manifiesta que ésta no existe y a continuación explica los diferentes instrumentos de publicidad existentes desde el perfil del contratante a la posibilidad de acceder a la

Kontratazio-Mahaietako ekitaldi publikoetara sarbidea eta kontratu txikiak jasotzen diren dekretuen programa on line kontsultatzeko sarbidea… ahalbidetzen duten publizitate-tresna desberdinak azaltzen ditu. Hobetzeko proposamenak jasotzeko prest dagoela adieraziz amaitzen du, jarduera guztiak hobetu daitezkeelako eta aurrerapenik ere egin izan delako oposizioaren proposamenak entzunda.

documentación, a poder acceder a los actos públicos de las Mesas de Contratación, a la consulta on line del programa de decretos donde vienen todos los contrato menores, etc. Finaliza indicando que está dispuesto a aceptar propuestas de mejora porque reconoce que toda actuación es mejorable y que algunos avances se han realizado también atendiendo a propuestas de la oposición.

Maitane Nerekan andreak talde popularrari erantzuten dio Bildu taldea beraiekiko urrundu egiten dela politikan dituzten irizpide etikoei dagokienez eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako irregulartasunak epaitegien aurrera eramateko jarrerak ez duela ezertarako balio izan gogorarazten die. Talde sozialistari alkatea gaitzestea posible dela iruditzen bazaie beraiekin elkarlanean aritzeko prest daudela adierazten dio. Alvaro Gonzalez jaunari adierazten dio fakturak Osoko Bilkurari aurkezten zaizkiola eta ez oposizioaren ekimenez, baizik eta, gobernu-taldearen kudeaketa txarragatik. Teknikarien atzean babestea kritikatzen dio eta arrazoi teknikoak badira tarteko, horiek batzordean azaltzeko esaten dio, gero erabaki ahal izateko. Kontratazio Arloan informazio-eskaerei arin eta modu positiboan erantzun zaiela aitortzen du, baina, beti ere, jarduerak jada gauzatuta daudenean, jarduera horiek erabakitzen parte hartzeko inolako aukerarik gabe. Mozioaren xedea proposamenak planteatzea eta kudeaketa hobetzea dira.

Maitane Nerekan replica al grupo popular que Bildu se distancia de ellos repecto a los criterios éticos en política y les recuerda que su postura de llevar a los tribunales las irregularidades manifestadas por el Tribunal Vasco de Cuestas Públicas no ha servido para nada. Al grupo socialista le indica que si les parece posible una reprobación del Alcalde ellos están dispuestos a trabajar conjuntamente. A Alvaro Gonzalez le manifiesta que las facturas se presentan al Pleno no por iniciativa de la oposición sino por la mala gestión del equipo de gobierno. Le critica que se escude en los técnicos y que si son razones técnicas se expliquen en comisión para después decidir. Reconoce que en el Área de Contratación se ha dado respuesta a las peticiones de información de manera rápida y positiva pero siempre después de realizadas las actuaciones, sin posibilidad de participar en la definición de las actuaciones. La moción busca plantear propuestas y mejorar la gestión.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du guztia ez dela Kontratazio Arloko arduradunak azaldu duen bezala eta kontratuen arabera, haiek Osoko

Eduardo Andrade indica que no todo es como lo que ha indicado el responsable de Contratación, indicando supuestos en que se han variado los

Bilkuran landuak izan ez daitezen, irizpideak aldatu dituztela; hainbat suposamendu aipatzen ditu. Aurreikuspen faltagatik kontratu asko ez direla garaiz iristen azpimarratzen du eta talde popularreko udalbatzarkide bat, zehazki, Toca jauna, Kontratzio-Mahaitik kanporatua izan zela, informazioa ematekotan hori azken orduan egiten dela azpimarratuz.

Alkateak EAJ-PNV taldearen eta gobernu-taldearen bozeramaile gisa esku hartzen du eta adierazten du Bildu taldeak mozio hau ez duela aurkeztu Kontratazio Arloaren kudeaketa egokia izatea interesatzen zaiolako, izan ere, udal-taldeek bai baitakite, zenbat denbora igaro den eta dituzten aholkulariak kontuan hartuta, Kontratazio Arloaren esku-hartzea prozeduraren azken atala dela. Mozioa Alderdi Popularrak zenbait kontratu eta faktura onartzeko gobernu-taldeari eman dion babesa dela eta egin dizkion kritikak onartzeko Bildu taldeak duen gaitasun eskasaren emaitza dela deritzo. Jarduera horrek nortasun politikoaren gabezia adierazten du eta PP-k egindako EAJ-PNV taldearen euskarri izatearen salaketen aurrean publikoki beren buruak berrestera behartzen ditu. Alkateari atentzioa deitzen dio Bildu taldea PP-ren estrategian erortzeak. Horretaz gain, uste du PP-k modu inkisidorean zinegotzi zehatzak seinalatzeko duen estrategiarekin bat egin dutela, Kultur Etxean egin zuten moduan, koalizioaren botoa hautsiz; horrek haien jokabidea adierazten du. Kontratazio Arloaren jarduera egokia azpimarratuz amaitzen du, bai zinegotzi arduradunarena bai bertan lan egiten duen langile guztiena eta alkatearen eta gobernu-taldearen babesa dutela azpimarratzen du.

criterios según los contratos en orden a evitar que sean tratados por el Pleno. Inicide en que muchos contratos no llegan a tiempo por falta de previsión y que a un corporativo del grupo popular, en concreto al sr. Toca, se le expulsó de una Mesa de Contratación insistiendo en que la información cuando se facilita se hace a última hora.

El Alcalde interviene, como portavoz del PNV y del equipo de gobierno, manifestando que esta moción no responde al interés de Bildu por la correcta gestión del Área de Contratación ya que los grupos municipales deben de conocer, teniendo en cuenta el tiempo transcurrido y los asesores con que cuentan, que la intervención del Área de Contratación es la última parte de todo un procedimiento. Estima que la moción es el resultado de la poca capacidad de encaje por parte de Bildu de las críticas que le lanza el Partido Popular acerca de su apoyo al equipo de gobierno en determinados contratos y aprobaciones de facturas. Esta actividad denota una evidente falta de personalidad política, lo que les obliga a realizar un ejercicio público de afirmación frente a las acusaciones del PP de ser apoyo del PNV. Le llama la atención al Alcalde que Bildu caiga en la estrategia del PP. También opina que se suman a la estrategia del PP en señalar de manera inquisidora a concejales concretos, como ya lo hicieron en el Aula de Cultura con una ruptura de voto de la coalición, lo que denota su forma de actuación. Finaliza resaltando el buen hacer del Área de Contratación, tanto del concejal responsable como de todos los empelados y empleadas de la misma, insistiendo en que cuentan con el apoyo

del Alcalde y del equipo de gobierno.

Maitane Nerekan andreak alkateari erantzuten dio Bilduren jarreraren diagnostikoa ez dutela onartzen eta ez diola axola, izan ere, PP alkatetzara iritsiko balitz EAJ-PNV taldearen antzeko kudeaketa egingo luke. Batzuetan horrelako neurriak hartzea beharrezkoa dela deritzo, Bildu taldeak eskuineko komunikabideen aldetik eta, baia, Udalaren aldetik ere, blokeo mediatikoa jasaten baitu, zeinak ez dion oposizioko talde politikoei prentsa-aretorik errazten,. beste erakundeetan errazten diren bezala. Mozioaren xedea ez dela Alvaro Gonzalez jauna harrikatzea adierazten du, izan ere, lehen adierazi duen gisan, gobernu-taldearen baitan bera da jarrera irekienetakoa duen udalbatzar-kidea.

Maitane Nerekan replica al Alcalde que no aceptan el diagnóstico de la postura de Bildu y no le importa porque si el PP alcanzara la alcaldía haría una gestión muy similar a la del PNV. Estima que a veces es necesario adoptar estas medidas porque Bildu sufre un bloqueo mediático por parte de los medios de comunicación de la derecha y también por parte del ayuntamiento que no facilita salas de prensa a los grupos políticos de la oposición como se facilitan en otras instituciones. Manifiesta que la moción no busca lapidar a Alvaro González ya que como antes ha indicado, dentro del equipo de gobierno, es de los corporativos que tiene actitudes más abiertas.

Eduardo Andrade jaunak esku hartzen du lortu nahi dena EAJ-PNV eta Bildu taldeen arteko liskarra eszenaratzea dela adierazteko, nahiz eta gaurko Osoko Bilkuran Bilduk gobernu-taldearen proposamen batzuei, fakturei buruzkoei, beren babesa eman dien. Bildu taldeari hausnarketa egiteko iradokitzen dio gobernu-taldearekin egindako hiru itun-urtetan Udalera sartu zenean zituen planteamenduei dagokienez zer lortu duten aztertzeko.

Eduardo Andrade interviene para indicar que lo que se busca es escenificar una pelea entre el PNV y Bildu pese a que en el Pleno de hoy Bildu ha apoyado unas propuestas del equipo de gobierno acerca de las facturas. Sugiere a Bildu que haga una reflexión para que analice qué ha conseguido en tres años de pactos con el equipo de gobierno en relación a los planteamientos con los que accedió al ayuntamiento.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: Bildu taldearen aldeko 4 boto, EAJ-PNV taldearen aurkako 10 boto eta PP eta PSE-EE taldeen 11 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor de Bildu, 10 votos en contra, PNV y 11 abstenciones PP, PSE-EE.

Eduardo Andrade eta Agustin Ruiz udalbatzar-kideek irten egiten dute.

Se ausentan los corporativos Eduardo Andrade y Agustín Ruiz.

**109.- GETXO-BILDU ALDERDIKO**

**109.- MOCIÓN DEL GRUPO**

**UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KALEETAKO PLAKAK EUSKARAZ.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du. Mozioak izpiritu eraikitzailea duela eta Osoko Bilkuran aurkezten dutela adierazten du, izan ere, euskararen ordenantza eztabaidatzen ari diren une honetan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzera bideratutako akordioak garrantzitsuak dira.

Koldo Iturbe jaunak adierazten du onartzeko moduko mozioa dela, naiz eta ez duen ulertzen Osoko Bilkuran mozio gisa zergatik planteatzen den, eskaria Euskara Arloko zinegotziari zuzenean edota Euskara Zerbitzuari aurkeztu beharrean. Ez dator bat mozioaren sarreran egiten diren baieztapenekin, alegia, Udalak gai hauetan ez duela ahal duen guztia egiten edo udal-erantzukizuneko gaiak eta hizkuntza-eskubideak ez dituela betetzen diotenekin; eta ikuspegi positibo batetik lanean eta markatutako ildo politikoa hobetzen jarraitu behar dela, herritarren babes handia eta gizarte-aintzatespena dituena, berresten du.

Raquel Gonzalez andreak, talde popularraren izenean, gai hori lantzen duten Euskara-Plana eta aho batez onartutako 2010eko mozioa daudela adierazten du eta, beraz, abstenitu egingo direla.

Luis Almansa jaunak talde sozialistak mozioaren alde bozkatuko duela adierazten du.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: EAJ-PNV,

**MUNICIPAL BILDU S/INSTALACIÓN DE LAS PLACAS DEL CALLEJERO EN EUSKARA.**

Maitane Nerekan da lectura a la moción. Indica que la moción viene con un espíritu constructivo y la presentan al Pleno porque en estos momentos que se está debatiendo la ordenanza del euskera son importantes los acuerdos que tienden al respeto de los derechos linguísticos de los vecinos.

Koldo Iturbe manifiesta que es una moción para aprobar aunque no entiende porque se plantea como moción en el Pleno en lugar de plantear la demanda al concejal de Euskera directamente o al Servicio de Euskera. Manifiesta que lo que en la introducción de la moción se recoge en relación a que el ayuntamiento no hace lo que puede en estos temas o que incumplen cuestiones de responsabilidad municipal y los derechos lingüísticos no comparte y se ratifica desde un punto de vista positivo en que hay que seguir trabajando y mejorando en la línea política marcada que cuenta con un gran apoyo ciudadano y reconocimiento social.

Raquel González, en nombre del grupo popular, manifiesta que existe un Plan de Euskera y una moción del año 2010 aprobada por unanimidad que trata de esta cuestión por lo que se van a abstener.

Luis Almansa manifiesta que el grupo socialista va a votar a favor de la moción.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor

Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 15 boto eta PP taldearen 8 abstentzio-boto.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

Duela gutxi, zenbait getxoztarrek kontatuta, jakin izan dugu udalaren hainbat kale-plaka erdera hutsean badirela. Oraindik!. Begirada arin batean, trafiko eta kale izendapenei dagozkien ondoko hauek topatu ahal izan ditugu: Bidebarri, Las Mercedes, Ondategi, Juan de Berroeta, Aldapa, Elorri, Urrimendi, Jaime Morera eta Villaondoeta kaleak izendatzen dituzten plakak, eta bestalde, Gobelena kaleko trafiko-seinale bat eta Areetako hondartzako komunekoa.

32 urte pasatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan elebitasunaren legea onartu zenetik, 35 urte Autonomia Estatutuak elebitasuna (beraz euskararen ofizialtasuna ere) lege egin zenetik. Zehazki, Euskararen erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, 1982an jada bazioen " kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira".

Baina esan behar dugu, zoritxarrez eta berriro ere, udalak ez duela ahal duen guztia egiten, ez eta egin behar duena ere.

Horren ondorio latza hauxe da: Getxoko udalerrian eta udalaren ardurapeko kontuetan ugari dira euskaldunoi, eta soilik euskaldunoi, urratzen zaizkigun hizkuntza eskubideak.

Honelako adibideek argi uzten dute, hizkuntza paisaia zuzentzeko ere euskararen ordenantza behar

PNV, Bildu, PSE-EE y 8 abstenciones, PP.

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Hace poco, varios vecinos y vecinas de Getxo nos han hecho llegar su malestar por algunas placas de calles que sólo estaban en castellano. ¡Todavía! En un rápido análisis hemos podido verificar que dichas placas corresponden a calles y señales de tráfico: por un lado, las de las calles Bidebarri, Las Mercedes, Ondategi, Juan de Berroeta, Aldapa, Elorri, Urrimendi, Jaime Morera y Villaondoeta; y, por otro, una señal de tráfico de la calle Gobelena y la de los servicios de la playa de Las Arenas.

Han pasado 32 años desde que se aprobó La Ley de Bilingüismo en la Comunidad Autónoma Vasca, 35 años desde que el Estatuto de Autonomía aprobó el bilingüismo ( por tanto también la oficialidad del euskera). Ya en 1982 La Ley Básica de Normalización recogía: "Las señales de calles, caminos y las indicaciones deberán estar en los dos idiomas"

Pero hemos de decir de nuevo y por desgracia, que el Ayuntamiento no hace todo lo que puede, ni siquiera lo que debe.

Una grave consecuencia de ello es que en el municipio de Getxo y en temas que son responsabilidad del Ayuntamiento, a los y las vascoparlantes, y sólo a los y las vascoparlantes, se nos niegan numerosos derechos lingüísticos.

Ejemplos como ese dejan claro que en Getxo es muy necesaria una Ordenanza del euskera hasta para corregir el

beharrezkoa dugula Getxon, arau maila ezarrita honelako huts egiteak gaindituko liratekelako.

paisaje lingüístico, ya que estableciendo normas se solucionarían errores de ese tipo.

Horrez gainera, azpimarratu behar da ESEP planak, 4.9.2.3 puntuan esaten den modura, "herriko izendegia (toponimoak, kale-izenak, parke publikoetakoak .. ) euskaraz jartzea eta oker daudenak zuzentzea" egitekoen artean batzen duela.

Además, debemos subrayar que el Plan ESEP establece, tal y como recoge en el punto 4.9.2.3, que "se debe colocar en euskera el nomenclátor municipal (topónimos, nombres de calles, de los parques públicos...) y corregir aquellos que sean erróneos".

Arestian esandakoa kontutan hartuta ondokoa erabakitzen du Getxoko Osoko Bilkura honek:

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo ha decidido:

Udal gobernuari eskatzea ahalik lasterren gaztelera hutsean diren plaka guztiak identifikatu, kendu, zuzendu eta berriak ezarri ditzala.

Solicitar al Gobierno Municipal que identifique las placas que están sólo en castellano, las quite, las corrija y ponga unas nuevas.

Eduardo Andrade eta Agustin Ruiz jaunak bilkurara gehitzen dira.

Se incorporan a la sesión Eduardo Andrade y Agustín Ruiz.

**110.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: FRACKING EZ MUGIMENDUAK AURKEZTUTA, HAUSTURA HIDRAULIKOA IKERTZEKO ABIAN DAUDEN BAIMENEN ETETEARI BURUZ.**

**110.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ SUSPENSIÓN DE LAS LICENCIAS CONCEDIDAS PARA EL ESTUDIO DE LA FRACTURA HIDRAÚLICA, PROPUESTA POR EL MOVIMIENTO OPUESTO AL FRACKING .**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du:

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) hidrokarburoak bilatzeko saiakera asko egon dira. Gure lurraldeak hidrokarburoetan aberatsak ziren beste lurralde batzuekin zituen antzekotasunengatik, petrolio enpresentzat zonalde interesgarria zirudien. Hainbat saiakera egon diren arren, ez dira inoiz izan uste bezain arrakastatsuak.

En la Comunidad Autónoma Vasca se ha intentado encontrar hidrocarburos en numerosas ocasiones. Debido a las semejanzas que nuestro territorio tenía con otras tierras ricas en hidrocarburos, parecía una zona interesante para las empresas petrolíferas. A pesar de que se han hecho varios intentos, nunca han resultado ser tan exitosos como se creía al principio.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzetako haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketan garatua izan da.

Aun así, como consecuencia de una nueva oleada de búsqueda de gas mediante nuevos métodos, nuestro territorio vuelve a ser zona prioritaria. La diferencia, consiste en este caso, en la combinación de la perforación horizontal y la fractura hidráulica. Esa técnica es conocida como Fracking y se ha desarrollado en Norteamérica.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du, horren froga nabariena SHESA, %100an diru publikoko enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.

El Gobierno Vasco ha apostado por este nuevo sistema, y la principal prueba de ello es que la impulsora de los permisos de investigación sobre los hidrocarburos es SHESA, una empresa financiada al 100% con dinero público. No es la única empresa interesada, pero si la que, gracias a sus permisos, ha conseguido hacerse con más superficie que el resto.

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, 2014ko apirilean EAE-n emandako 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraía, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-n zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

El proyecto se puso en marcha en 2005 con la petición de varios permisos, concediéndose el primero en 2006. Aunque el permiso más conocido sea el llamado Enara, en abril del 2014 se dieron 11 permisos: Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Géminis y Saia; y hay otros seis solicitados y en vías de ser aceptados: Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraía y Landarre. Todos esos permisos ocupan grandes zonas de la CAV: el 88% de Álava, el 78% de Bizkaia y entorno al 40% de Gipuzkoa.

Teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, hala nola edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, airearen kutsadura, lurren okupazio eta putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak besteak beste. Gaur egun, fracking-ak

En las zonas donde se han utilizado dichas técnicas han surgido diversos problemas, como por ejemplo: contaminación de agua potable, aparición de movimientos sísmicos, contaminación del aire, ocupación de tierras y problemas de salud de la gente que vive alrededor de los pozos. Hoy

dakartzan ondorio kaltegarriak hainbat txosten eta ikerketa zientifikoetan erraz egiaztatu daitezke

en día, las consecuencias negativas provocadas por el fracking se pueden verificar fácilmente mediante informes e investigaciones científicas.

Hau dela eta fracking-a egiten ari diren edo egiteko asmotan dauden lekuetan biztanlegoaren aurkako jarrera gero eta nabarmenagoa da. Instituzioetan ere hasia da islatzen aurkakotasun hori, eta hainbat lekuetan fracking-a mugatzen edo debekatzen dituzten, adierazpenak, galdeketak, legeak eta abar onartuak izan dira. Adibide gisa, Vermont estatuak, AEB-etan edo estatu frantziarrak, europan, fracking-a debekatu dute beraien lurraldeetan. Guregandik gertu, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian fracking-a debekatzen duten lege autonomikoak onartu dira. Eta estatu espainiarrean 400 udalerritik gora izan dira bere burua "fracking gabeko udalerria" bezala izendatu direnak.

Por todo ello, la actitud contraria de los habitantes de los lugares donde se está practicando o se quiere practicar el fracking es cada vez más notoria. También en las instituciones comienza a aflorar esa oposición, y hay lugares donde se ha limitado o prohibido el fracking por medio de declaraciones, cuestionarios y leyes. Por ejemplo, el estado de Vermont, en los Estados Unidos de América, y el estado francés, en Europa, han prohibido el fracking en sus territorios. En lugares más próximos, Navarra, La Rioja y Cantabria han adoptado leyes autonómicas que prohíben el fracking. Y en el estado español son ya más de 400 los municipios que se han proclamado "municipios sin fracking".

Teknika hau sortzen ari den arazoen aurrean, eta berauek agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerri honen mugen barruan teknika han en erabilera galaraztea.

Ante los problemas que está causando esta técnica, y con la finalidad de prever e impedir su aparición, el objetivo de esta moción es impedir el uso del fracking dentro de los límites del municipio.

Honen guztiagatik, Udalbatza honi aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:

Por consiguiente, presentamos al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo, para que sea debatida y admitida:

1.- Getxoko Udalbatzak fracking-aren bitartez aztertu, ikertu edo ustiatu daitezken hidrokarburo ez konbentzionaletarako Ikerketa Baimen guztiak bertan behera geratzea eskatzen dio Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoari.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita a la empresa pública Hidrocarburos de Euskadi que cancele todos los permisos de análisis, investigación o explotación sobre hidrocarburos no convencionales en los que se utilice la técnica del fracking.

2.- Getxoko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren

2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno Municipal que, ya

aurkako iritzia dela eta, jarrera aktiboa har dezan Getxo "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerriaren sarreran jarriz.

que es contrario al fracking, adopte una actitud activa proclamando al municipio de Getxo "municipio sin fracking" y coloque en la entrada del municipio la señal de "Fracking ez".

3.- Frackingaren debekua eskatzen duen Herri Ekimen Legegilearen helburuarekin bat egiten duenez, Getxoko Udalbatzak udaletxeko harrera bulegoetan sinadurak jasotzeko orriak izango ditu eta herritar guztiak sinatzera gonbidatuko ditu.

3. La Corporación Municipal, dado que está de acuerdo con los objetivos de la Iniciativa Legislativa Popular que exige prohibir el fracking, tendrá en las oficinas de recepción del Ayuntamiento hojas de recogida de firmas, e invitará a todos los ciudadanos y ciudadanas a firmar.

Maitane Nerekan andreak adierazten du mozioa Antifraking plataformaren eskariz aurkezten dela eta Bildu taldea ere teknika horren aurka dagoela. Mozioa Eusko Legebiltzarrean herritarren sinadura bidez lege-proposamen aurkeztu aurretik planteatzen dela adierazten du.

Maitane Nerekan manifiesta que la moción se presenta a instancias de la Plataforma Antifraking y que Bildu también está posicionado en contra de esta técnica. Informa que la moción se plantea estos momentos previos a la presentación de una proposición de Ley al Parlamento Vasco mediante firmas ciudadanas.

Luis Almansa jaunak alde bozkatuko dutela baina erreserbekin adierazten du, izan ere, eztabaida hau Getxon aurkezteko arrazoirik ez dute ikusten, arrazoizkoagoa iruditzen zaie Eusko Legebiltzarrean aurkeztea, Getxon ez baita egin eta ez baitago inolako zulaketarik egitea aurreikusita. Jarraian, talde sozialistaren jokabidea finkatzen du adieraziz:
"Hidrokarburoen erauzketari buruzko lege bidezko arauketa propioa nahi dugu.
Balizko erauzketa-jarduera bakoitzaren, fracking-a barne, aldekoei eta aurkakoei buruzko datu teknikoak nahi ditugu.
Debate hau behar hainbat luze izatea nahi dugu, lasaitasunetik egiteko eta ez erretzeko.
Antifracking plataformaren ekimen legegile herrikoia debate honetarako aukera ona dela uste dugu.

Luis Almansa indica que van a votar a favor aunque con reservas porque no ven motivos para presentar este debate en Getxo, ya que es más razonable que se presentara en el Parlamento Vasco, teniendo en cuenta además que en Getxo ni se ha realizado ni está prevista la realización de ninguna perforación. A continuación fija la postura del grupo socialista indicando:
"Queremos una regulación legal propia sobre la extracción de hidrocarburos.
Queremos datos técnicos de los pros y los contras de cada posible actividad extractiva incluida el fracking.
Queremos que este debate sea todo lo largo que deba ser, para hacerlo con serenidad y no desde la soflama.
Creemos que la Iniciativa Legislativa Popular de la plataforma antifracking es una buena oportunidad para este debate.

Ingurumenari buruzko debateak energiari buruzko debatearekiko, gure energia-beharrei dagokienez, paraleloa izan behar duela uste dugu.
Fracking-aren inguruan zalantza asko dagoela uste dugu.
Azken batean, debate hau ospatzen ari den bitartean inolako ustiaketa-jarduerarik ez onartzea. Ezta esploratze-jarduerarik ere, erabateko ingurumen-bermeak ematen ez diren bitartean."

Creemos que el debate ambiental debe ser paralelo al debate energético, respecto a nuestras necesidades energéticas.
Creemos que hay muchas dudas sobre el fracking.
En definitiva, mientras se produce ese debate, no permitir ninguna actividad de explotación. Tampoco de exploración si no se dan plenas garantías ambientales."

Jone Ruiz de Eguilaz andreak, talde popularraren izenean, fracking-ari buruzko debatea, batez ere, teknikoa dela eta zundaketa eta jarduera bakoitza organismo eskudunek berrikusi eta baimendu behar dutela adierazten du. Egia da ustiaketa horietan azpi-produktu kimikoen erabilpenak kezkatzen gaituela, baina elementu horien eragina aldatu egiten da lurzoruaren ezaugarrien arabera eta erabili beharreko teknikei dagokienez ere aldagaiak daude; beraz, baimen bakoitza eragindako lursailen, ingurumenaren gaineko eraginen eta abarren arabera aztertu behar da. Gaur egun, ezagutza-zundaketak ari dira egiten eta ez ustiaketak; lurpean gasa dagoen jakin behar da, alabaina, azterketa guztietan ez dago fracking-aren teknika erabili beharrik. Etorkizunean, hala badagokio, ustiaketak nola egin daitezkeen eta zein neurri hartu behar diren aztertu beharko da. Talde popularra ez dagoela fracking erabiltzearen alde ez kontra baina erabiltzekotan bermeekin egin behar dela adieraziz amaitzen du. Lurpean dagoen gasa aztertzea beharrezkoa dela uste dute.

Jone Ruiz de Eguilaz, en nombre del grupo popular, manifiesta que el debate del fracking es fundamentalmente técnico y que cada sondeo y actuación ha de ser revisado y autorizado por los organismos competentes. Es cierto que el uso de subproductos químicos en estas explotaciones es lo que preocupa, pero la incidencia de estos elementos varía según las características del suelo y también existen variables sobre las técnicas a utilizar, por lo que hay que analizar cada autorización en atención a los terrenos afectados, impactos sobre medioambiente, etc. En la actualidad se están realizando sondeos de conocimiento y no explotaciones y estiman que debe de investigarse acerca de la posible existencia de gas en el subsuelo sin que en todos los estudios sea necesario utilizar la técnica del fracking. Será necesario estudiar a futuro como se pueden realizar las explotaciones, si proceden y qué medidas se adoptan. Finaliza indicando que el grupo popular ni apoya ni se opone al uso del fracking pero que este debe de realizarse con garantias y creen que es necesario estudiar la existencia de gas en el subsuelo.

Koldo Iturbe jaunak mozioa EAJ-PNV taldeak gaiari dagokionez duen jarreratik aldendu egiten dela

Koldo Iturbe manifiesta que la moción se aleja de las posiciones del PNV al respecto por lo que plantea la siguiente

adierazten du, beraz, honako emendakin transakzionala planteatzen du:

*"Getxokoko udalak zera eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari :*
*1º Euskadin gas ez konbentzionalaren ustiapenaren moratoria aldarrikatzea.*
*2º Batzorde zientifikoa sortzea, gas ez konbentzionala ateratzeko teknologiaren etengabeko azterketa egin dezan, bereziki ingurumenean duen eragina murrizteko eta gaurko teknikek dakartzaten arriskuak ezabatzeko.*
*3. 3E-2020 estrategian bildutako ikerkuntza eta ustiapen egitasmoek ingurumenerako dakartzaten eraginak aztertzeko eta ebaluatzeko prozeduren arabera aztertu, une oro gardentasun printzipioari jarriki eta gobernuak izango duen informazio guztia eskuratzeko aukerarekin."*

Maitane Nerekan andreak emendakina ez duela onartzen adierazten du, mozioa Antifracking Plataformarena delako.

Koldo Iturbe jaunak adierazten dio bere proposamenak EAJ-PNV taldearen iritzia ordezkatzen duela. Egon daitezkeen gas naturaleko erreserbak kontuan hartu behar direla deritzo, baina haiek ingurumen-araudia eta akuiferoen erreserbak erabat errespetatuz aztertu behar direla. Halaber, baliabide hori fracking teknikaren bidez ustiatzeari egoki irizten bazaio, luzamendu bat planteatzen dute gaiari dagokionez batzorde zientifiko bat eratu arte eta, beharrezko azterketak egin ostean, ingurumena bermatuko duen ustiaketa zein suposamendutan eta baldintzetan egin daitekeen ondoriozta dadin.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da

enmienda transacional:

*"El Ayuntamiento de Getxo solicita a Gobierno Vasco:*
*1º La declaración de una moratoria en la explotación de gas no convencional en Euskadi.*
*2º La creación de una comisión científica que realice un análisis permanente de la evolución de la tecnología para la extracción de gas no convencional, en especial la reducción de los impactos medioambientales y la eliminación de los riesgos que las actuales técnicas suponen.*
*3. Someter los proyectos de investigación y exploración recogidos en la estrategia 3E-2020 a los procedimientos de análisis y evaluación de impacto ambiental, actuando en todos los procesos bajo el principio de trasparencia, con posibilidad de acceso a la totalidad de información que maneje el gobierno."*

Maitane Nerekan indica que no admite la enmienda porque la moción proviene de la Plataforma Antifracking.

Koldo Iturbe indica que su propuesta representa la opinión del PNV. Opina que hay que tener en cuenta las posibles reservas de gas natural analizándose las mismas siempre con absoluto respeto a la normativa meiodambiental y a las reservas de acúiferos. Asimismo, si se ve conveniente la explotación de este recurso mediante el fracking plantean una moratoria en tanto no se constituya una comisión científica al respecto y tras los estudios necesarios llegue a las conclusiones que determinen en qué supuestos y en qué condiciones pueda realizarse una explotación con garantías al medio ambiente.

Sometida la moción a votación es

onartzen honako emaitza lortzean: Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 6 boto, EAJ-PNV taldearen aurkako 10 boto eta PP taldearen 9 abstentzio-boto.

rechazada al obtener 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE y 10 votos en contra PNV y 9 abstenciones, PP.

Maitane Nerekan andreak irten egiten du.

Se ausenta Maitane Nerekan.

**111.- PSE-EE ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EREAGAKO HONDARTZA ONDOAN HAUR-JOLASAK EZARTZEA.**

**111.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/INSTALAR JUEGOS INFANTILES EN LA ZONA DE LA PLAYA DE EREAGA.**

Luis Almansa jaunak proposamena irakurtzen du.

Luis Almansa da lectura a la propuesta.

Joseba Arregui jaunak gobernu-taldea ekimenarekin bat datorrela adierazten du, baina non jarri aztertu beharko litzateke, beraz, horiek ezartzearen bideragarritasuna aztertuko dute.

Joseba Arregui indica que el equipo de gobierno comparte la iniciativa pero habría que estudiar dónde ubicarlos, por lo que estudiarán la viabilidad de su implantación.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto, Bildu taldearen aurkako 3 boto eta EAJ-PNV taldearen 10 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor: PP, PSE-EE, 3 votos en contra, Bildu y 10 abstenciones, PNV.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Ereagako hondartza eta ingurua gure udalerriko toki paregabea dira eta getxotarrek modu anitzetan gozatzen dute bertan, urte osoan zehar. Pasealeku luzea dauka, txirrindularientzako eta patinatzaileentzako bidegorria eta helduek ariketa fisikoa egiteko makinen eremu bat, baina ez dago haurrentzako jolasgunerik.

La playa de Ereaga y su entorno son un lugar privilegiado de nuestro municipio, donde los y las Getxotarras disfrutan de distintas formas durante todo el año. Cuenta con un largo paseo, un bidegorri para los y las ciclistas y patinadores y un área de máquinas para realizar ejercicio los adultos, pero carece de una zona de juegos infantiles.

Dagoen jolasgune bakarra Gurutze Gorriaren parean dago, baina handik

La única área con juegos infantiles se encuentra frente a la Cruz Roja., pero

Portu Zaharrera arte, haurrek ez daukate beraien adinerako egokia den beste instalaziorik. Haur batzuk ariketak egiteko makinetan jostatzen dira, baina ez daude beraientzako pentsatuta, are arriskutsuak izan daitezke.

desde ahí hasta el Puerto Viejo, los niños y niñas ya no tienen ningún lugar con instalaciones acordes a su edad. Algunos y algunas se entretienen en las máquinas para realizar ejercicio, pero no están pensadas para ellos e incluso pueden resultar peligrosas.

Herritar askok jo dute gure talde politikoarengana, Ereagako hondartzaren zonan haurrentzako jolasgune bat jartzea eskatzeko, haurrek ere paseoaz edo jolas-une batez gozatu ahal izan dezaten, familiak hondartzako terrazaren batean dauden bitartean.

Son numerosos los vecinos y vecinas que se han dirigido al grupo para solicitar que se instale un área de juegos infantiles en la zona de la playa de Ereaga, para que también los niños y niñas puedan disfrutar del paseo o de un rato lúdico mientras las familias se entretienen en las numerosas terrazas de la playa.

Azaldutako guztiagatik, Udaleko Talde Sozialistak honako erabaki-proposamena aurkezten dio Udaleko Osoko Bilkurari:

Por todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de

AKORDIOA

ACUERDO

Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Ereagako Hondartzako zonan haurrentzako jolasgune bat jartzeko eskatzen dio alkateari.

El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Alcalde a que instale un área de juegos infantiles en la zona de la Playa de Ereaga.

Maitane Nerekan andrea berriro gehitzen da bilkurara.

Se incorpora Maitane Nerekan a la sesión.

**112.- PSE-EE ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: MANOLO ZUBIAGA GETXOKO LEHENENGO HEGAZKIN-PILOTUAREN EZAGUTZA.**

**112.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/RECONOCIMIENTO AL PRIMER PILOTO-AVIADOR DE GETXO, MANOLO ZUBIAGA.**

Luis Almansa jaunak mozioa irakurtzen du. Halaber, 1913ko uztailaren 31ko Euzkadi egunkariko kronika bat irakurtzen du, non, gertaera jasotzen den.

Luis Almansa da lectura a la moción. Asimismo da lectura a una crónica del Diario Euzkadi, de 31 de julio de 1913, que recoge el evento.

Marisa Arrue andreak honako emendakin transakzionala planteatzen du:

*"Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Manolo Zubiaga Aldecoa udalerriko seme kutun izendatzeko espedienteari hasiera ematea eta, oroitzapen eta omenaldi gisa, Gaztelako Itsasarmadaren Plazari Manolo Zubiaga Aldecoa Plaza izena aldatzea adosten du."*

Luis Almansa jaunak adierazten du emendakina ez dela mozioaren berdina, nahiz eta osagarria izan daitekeen; beraz, ez du emendakina onartzen, PP taldeak egoki irizten badio emendakin hori hurrengo Osoko Bilkuran mozio gisa aurkeztearen kalterik gabe.

Koldo Iturbe jaunak, modu positiboan, adierazten du Getxoko Udaleko Berdintasun Planak udalerriko kale-izendegian emakumezkoen presentzia gehitzeko beharra planteatu zuela eta planteatzen duten transakzionala irizpide horren aurka joango litzatekeela. Manolo Zubiaga jaunaren balentria ez dutela zalantzan jartzen adierazten dute eta Kultur Etxeari informazio-panela jartzea jada planteatu zaiola gogorarazten du, nahiz eta mozioak plaka jartzea planteatu, aitorpen-eskaera asko daudela adieraziz. Gobernu-taldea abstenitu egingo dela adierazten du, alabaina, mozioa maitasunez aztertuko dute, gertaerak aitorpenen baten objektu izan behar duela uste baitute.

Luis Almansa jaunak plaka informazio-panelaz ordezkatzeko inolako eragozpenik ez dutela adierazten du, baina aitorpen hori Udaletik egitea garrantzitsua dela deritzo.

Koldo Iturbe jaunak gaia aztertuko

Marisa Arrúe plantea la siguiente enmienda transacional:

*"El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda que se inicie un expediente para nombrar a Manolo Zubiaga Aldecoa, Hijo Predilecto del municipio y como recuerdo y homenaje se cambie el nombre de la Plaza Marina de Castilla por el de Manolo Zubiaga Aldecoa."*

Luis Almansa indica que la enmienda es distinta de la moción aunque pueda ser complementaria por lo que no admite la misma, sin perjuicio de que si el PP lo estima conveniente presente esa enmienda como moción en un próximo Pleno.

Koldo Iturbe manifiesta al grupo popular en tono positivo que el Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo planteó la necesidad de incrementar la presenta de mujeres en el callejero municipal y que la enmienda transaccional que plantean iría contra ese criterio. Manifiesta que no dudan de la importancia de la hazaña de Manolo Zubiaga y recuerda que al Aula de Cultura ya se le ha planteado la colocación de un panel informativo y la moción plantea la colocación de una placa indicando que hay muchas peticiones de reconocimiento. Manifiesta que el equipo de gobierno se abstendrá pero que sin embargo estudiarán la moción con cariño, ya que estiman que el evento debe de ser objeto de algún reconocimiento.

Luis Almansa manifiesta que no tiene inconveniente en sustituir placa por panel informativo pero cree que lo importante es que el reconocimiento se realice desde el ayuntamiento.

Koldo Iturbe se reitera en que van a

dutela, nahiz eta lehentasunezkoa izan ez, eta gaia maitasunez landuko dutela errepikatzen dio.

estudiar la cuestión aunque no sea prioritario y que abordarán el tema con cariño.

Marisa Arrue andreak talde popularrak mozioa ez dagoela osatuta deritzola eta emendakin transakzionalak proposamena hobetzen zuela adierazten du; dena den, onartua izan ez bada ere, mozioaren alde bozkatuko dute, izan ere, Manolo Zubiaga bere balentriekin eta jarduera aeronautikoekin oihartzun handia izan zuen getxotarra izan zen. Sentitzen du gobernu-taldeak lehentasunen artean ez kokatzea eta, Berdintasun Planari dagokionez, Zubiaga jauna gizonezkoa izatea ezin dutela eragotzi adierazten du.

Marisa Arrúe manifiesta que el grupo popular opina que quedaba incompleta la moción y que la enmienda transacional mejoraba la propuesta pero aunque no haya sido admitida votarán a favor de la moción, ya que Manolo Zubiaga fue un getxotarra que marcó una época con sus hazañas y actividades aeronáuticas Lamenta que el equipo de gobierno no tenga esta prioridad e indica respecto al Plan de Igualdad que lo que no pueden evitar es que el sr. Zubiaga fuera un hombre.

Alkateak Berdintasun Planarekin bertako kale-izendegian emakumezko gehiagoren izenak sartzea eta kale-izendegia toponimoz estaltzea onartu zela gogorarazten du. Mozioaren edukia maitasunez aztertuko dela esanez amaitzen du.

El Alcalde recuerda que con el Plan de Igualdad se aprobó incorporar más nombres de mujeres al callejero local así como que también el callejero local se cubriera de topónimos. Indica finalmente que el contenido de la moción será estudiado con cariño.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen du: PP, Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 15 boto eta EAJ-PNV taldearen 10 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor, PP, Bildu, PSE-EE, 10 abstenciones, PNV.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Iazko uztailean bete ziren 100 urte, Algortan jaiotako eta Getxoko lehenengo pilotu-hegazkinlaria izan zen Manolo Zubiagak, Biarritzetik Getxorako hegaldia egin zuenetik, Zarauztik pasata. Gorabehera ugari izan zuen hegaldian zehar eta Getxoko Abran egindako larrialdiko lurreratzearekin amaitu zen. Balentria hari ondo merezitako garrantzia eman zioten garai hartako prentsak eta

En julio del pasado año se cumplió el centenario de la llegada en vuelo a Getxo procedente de Biarritz vía Zarautz de Manolo Zubiaga, nacido en Algorta y primer piloto-aviador de Getxo. Un vuelo lleno de pericias que acabó en un amerizaje de emergencia en el Abra de Getxo. Tal hazaña, a la que la prensa y publicaciones de interés general de la época, le dieron la importancia que merecía, convirtieron

interes orokorreko argitalpenek eta getxotar hura euskal abiazioaren arima bihurtu zen. 1950ean Aero Club de Vizcaya sortu zuen eta beste ia 30 urtez jarraitu zuen hegan egiten. Uste dugu pertsonaia haren oroitzapenak denboran zehar iraun behar duela; horregatik, interesgarria izango litzateke udalerriarentzako, Zubiaga, 1913an, halabeharrez, baina, arrakastaz itsasoratu zen Abraren parean plaka bat jartzea, balentria haren oroitzapenetan.

al ilustre Getxotarra, en el alma de la aviación vasca. Fundó en 1950 el Aero Club de Vizcaya y continuo volando casi 30 años más. Considerando que el recuerdo de tal figura debe permanecer en el tiempo, sería de interés para el municipio, que frente al Abra, donde forzosamente pero con éxito amerizó Zubiaga en 1913, se colocara una placa conmemorando tal hazaña.

Azaldutako guztiagatik, Udaleko Talde Sozialistak honako erabaki-proposamena aurkezten dio Udaleko Osoko Bilkurari:

Por todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de

AKORDIOA

ACUERDO

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak erabaki du, Gaztelako Marina Plazan (Areetako Moilak eta Arriluzeko Markesaren Pasealekuak bat egiten duten puntuan), Manolo Zubiaga getxotarraren itsasoratzea gertatu zen lekuaren parean plaka bat jartzea, gertaera haren oroitzapenetan.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda la colocación de una placa conmemorativa frente al lugar donde realizó el amerizaje el aviador getxotarra Manolo Zubiaga, en la Plaza Marina de Castilla (confluencia del Muelle de Las Arenas con el Paseo Marqués de Arriluce).

2. Ondorioz, eta efemeridea baliatuz, plaka horri jartzearekin batera, ekitaldi instituzionala antolatzeko eskaera egiten zaio Alkatetzari.

2.- En consecuencia, se insta a la Alcaldía que aprovechando la efeméride organice un acto institucional con la colocación de dicha placa.

**GALDE-ESKEAK**

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Maitane Nerekan andreak, Portu Zaharreko Etxetxu atariari dagokionez, hark duen kontserbazio-egoera eta garbiketa dela eta kexak jaso dituztela adierazten du eta alkateari horien berri ba al duen galdetzen dio. Edozein kasutan ere, garbiketa-enpresari egoera horren berri helaraztea eskatzen dio, kontuan hartu dezan. Halaber, alkateari

Maitane Nerekan, en relación al pórtico Etxetxu del Puerto Viejo, manifiesta que han recibido quejas en relación a su estado de conservación y limpieza por lo que pregunta al Alcalde si tiene conocimiento de las mismas y, en todo caso, le pide que trasmita esa situación a la empresa de limpieza para que actúe en consecuencia. Asimismo pide al

etxea utzarazi zaion familiari eman zaizkion jarraibide zehatzen eta erraztu zaizkion baliabideen berri idatziz jakitea gustatuko litzaiekeela eta idatzizko informazio hori udal-talde guztiei igortzea nahiko lukeela adierazten dio.

Alcalde que les gustaría conocer por escrito qué indicaciones concretas y recursos se les ha facilitado a la familia desalojada y que dicha información escrita se remita a todos los grupos municipales.

Alkateak eskaeran berri jasotzen duela eta bihar Portuko auzotarrekin biltzekoa dela gaia beraiekin lantzeko erantzuten dio.

El Alcalde le responde que toma nota de las peticiones y le informa que mañana se va a reunir con los vecinos del Puerto Viejo y tratará la cuestión con ellos.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du gaueko hamarrak eta hamabost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veintidós horas y quince minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.